

Berdintasunaren eta emakumeen eskubideen adierazpena: orain inoiz baino gehiago

Martxoaren 8a Emakumearen Nazioarteko Eguna da, eta egun giltzarria izaten jarraitzen du emakumeen elkarteek – feministak, langileenak, giza eskubideenak edo beste edozein arlotakoak – desberdintasunaren aurka beren ahotsa altxatzen jarrai dezaten, genero-berdintasuna bermatzeko politika publikoak sustatuz eta partaidetza eta ekintza kolektiborako espazioak eskainiz.

Martxoaren 8a ospakizuna baino gehiago da, historian zehar emakume askok gizarte osoaren baldintzak hobetzeko eta gatazkak indarkeriarik gabe konpontzeko egin duten etengabeko lanaren eta borroka nekaezinaren oroigarria. Berdintasun formalak aurrerapen garrantzitsuak lortu baditu ere, emakume-elkarteok borrokan jarraitzen dugu berdintasun hori eguneroko bizitzan errealitate bihurtzeko.

Gaur egun, hauek dira emakumeen elkarre-sarearen aldarrikapen nagusiak:

- 1. Ekonomia-, soldata- eta gizarte-ongizateko berdintasuna.**
- 2. Genero-indarkeria desagerraraztea.**
- 3. Ugalketa- eta sexu-eskubideak.**
- 4. Hezkuntzarako sarbidea, berdintasunean eta etengabeko prestakuntzan.**
- 5. Ordezkaritza politikoa eta soziala.**
- 6. Erronka intersektionalak.**
- 7. Berdintasuna eta demokrazia, bizitza eta iraunkortasuna artikulatzeko.**

Eskaera garrantzitsuenetako batzuk baino ez dira horiek, nahiz eta ingurune bakoitzak premia espezifikokoak dituen.

Nafarroan, berdintasun formalerako bidean aurrerapenak egin diren arren, hainbat genero-arrakala daude oraindik, emakumeei hainbat eremutan eragiten dietenak; horien artean, honako hauek nabarmentzen ditugu:

- 1. Generoko soldata-arrakala:** Nafarroako emakumeek, batez beste, gizonek baino % 27 gutxiago irabazten dute, hau da, urtean gutxi gorabehera 6.800 euroko aldea. Espainian generoko soldata-arrakala handiena duen erkidegoa gara.
- 2. Okupazio-segregazioa:** soldata baxuagoak dituzten sektoreetan metatzen dira emakumeak, hala nola zerbitzuen sektorean, non 111.100 emakumek lan egiten baitute, industrian, aldiz, 23.700 emakumek.
- 3. Pentsioen arteko arrakala:** Nafarroako emakumeek gizonek baino % 36,7 pentsioa txikiagoak jasotzen dituzte.
- 4. Jarduera-tasaren eta behin-behinekotasunaren arteko aldea:** emakumeen jarduera-tasa gizonena baino txikiagoa da, eta lan-kontratuetan behin-behinekotasun handiagoa dute.
- 5. Kontziliazio eta erantzukidetasuneko arrakala:** emakumeek zama handiagoa hartzen dute zaintza-lanetan eta etxeko arduretan, eta horrek eragina du lan-merkatuan duten parte-hartzean eta garapen profetionalean.
- 6. Arraila erantzukizuneko karguetara iristeko:** emakumeek ordezkaritza txikia dute lidergo-postuetan eta erabakiak hartzeko postuetan, bai esparru politikoan, bai enpresa-eremuan, eta horrek mugatu egiten du haien eragina politiken eta estrategien definizioan.

Arrakala horiek erakusten dute Nafarroan emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna bermatzeko politika publiko espezifikoak eta aldeko ekintza-neurriak behar dituzten egiturazko desberdintasunak.

Hona hemen neurri horietako batzuk:

- **Enpresetako berdintasun-planak:** soldata-arrakala murrizteko eta lana eta familia bateragarri egiteko jarduerak barneratzen.
- **Emakumeek politikan parte har dezaten sustatzea:** hauteskunde-zerrendetako parekotasuna sendotuz eta ordezkari-taldekak lortu nahi dituzten emakumei babesa emanaz.
- **Sentsibilizazio eta hezkuntza-programak:** gizartea genero-berdintasunaren garrantziaz sentsibilizatzeko eta txikitatik berdintasunean oinarritutako hezkuntza sustatzeko programak bultzatzen.

Emakumeen elkarteak dira berdintasunaren bermatzaile handienak.

EMAKUMEOK, ELKARTUTA INDARTSUAGOAK GARA!



**Coordinadora de Organizaciones
de Mujeres y/o Feministas por
la Igualdad en Navarra. Nafarroa
osoko Emakume Elkarten Federazio**